



Elorrioko udala

IGERILEKUEN FUNTZIONAMENDUA

Elizaldeko igerilekuak eta kiroldegiko igerilekua ahalik eta pertsona gehienek erabil dezaten ahalbidetzeko, erabiltzaileen txanda-sistema bat ezarriko da, eta erabiltzeko muga batzuk egongo dira.

Instalazioetan bi txanda egongo dira, bat 11:00etatik 15:15era eta bestea, 16:15etik 20:30era. Bi txanden arteko ordu horretan instalazioak itxita egongo dira, eta garbiketa eta desinfektatze lanak egingo dira bertan.

Oraingoz behintzat, ezin izango dira instalazioak bi txandetan erabili.

Elizaldeko igerilekuetako aparkalekua ez da erabilgarri egongo. Soilik kargatze eta deskargatze lanak egiteko aukera egongo da. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonak aparkatzeko aukera izango dute. Horretaz gain, bizikleten aparkalekuak egongo dira erabilgarri.

Abonuak egiteko kanpaina:

Ekainaren 12an, ostirala, irekiko da igerilekuetarako abonua egiteko epea. Izena emateko agiria Elorrioko Udalaren webgunetik deskarga daiteke. Halaber, HAZen eta udaletxe atariko postontzian ere har daiteke. Izena ematera bertaratu behar duten pertsonak izena emateko orria beteta eraman behar dute kiroldegira.

Kiroldegiko abonurik gabeko pertsonak:

- Kiroldegian bertan egin dezakete ekainaren 12tik aurrera, astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:00etara.
- Ordainketa eskudiruz edo txartelaren bidez (aukera hau hobetsiko da) egin dezakete.

Kiroldegiko abonua duten pertsonak (ordainketa helbideratuta):

- Webgunean dagoen fitxategia jaitsi eta honako helbide honetara bidali ahal izango dute: elorrikiroldegia@gmail.com

Kiroldegiko abonua duten pertsonak (ordainketa helbideratu gabe):

- Webgunean dagoen fitxategia jaitsi eta honako helbide honetara bidali ahal izango dute, ordainketa helbideratzeko baimenarekin: elorrikiroldegia@gmail.com

- Kiroldegira bertara joan daitezke, ekainaren 12tik aurrera, astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:00etara eta eskudiruz edo txartelaren bidez (aukera hau hobetsiko da) ordaindu.

Aurretiazko hitzordua

Igerilekuetara joateko aldeztu aurretik lotu behar da hitzordua, online plataformaren bidez edo 94 682 10 27 telefono zenbakira deituta. Erreserbak aurreko egunean egin beharko dira, eta egunean bertan txandak izango direla bermatzeko, ezin izango da beste hitzordurik hartu aurrekoa bete aurretik.

Txandakatze-sistema honi esker, 1.100 lagunek erabili ahal izango dituzte igerilekuak bi txandetan.

Instalazioen erabilera

Oraingoz ezin izango dira igerilekuetako txirristak erabili, eta osasun-agintariek emandako jarraibideak bete behar izango dira instalazioetan, esaterako, pertsonen arteko distantzia, uretan eta uretatik kanpo, eta eremu osoan.

Instalazioetan jende kopurua mugatu den bezala, igerilekuen barruan ere kopurua mugatua izango da, eta litekeena da uretan egon ahal izango den denbora ere mugatu behar izatea, jende guztiak uretan ibiltzeko aukera izan dezan.

Osasun-agintariek emandako jarraibideen arabera, oraingoz ezin izango dira aldagelak erabili, eta itxita egongo dira. Mugikortasun arazoak edo beharizan bereziak dituztenek soilik erabili ahal izango dituzte (instalazio bakoitzeko harreraren eskatuta), baina horiek ere, dutxarako aukerarik gabe.

Arrazoi berberengatik, aurtengo udan ez dira eguzkitakoak mailegatuko eta ezin izango dira norberaren eguzkitakoak bertan gorde. Hortaz, eguzkitakoa erabili nahi duenak txanda bakoitzean eraman beharko du, eta etxera itzuli beharko du txanda amaitzean.

Kiroldegiko instalazioak

Kiroldegietan bete behar diren osasun-baldintzak kontuan hartuta, ez da kiroldegia zabalduko ohiko jardueretarako. Igerilekuak erabiltzeko baldintzak desberdinak dira kirola egiteko edo olgetarako erabiltzen diren kontuan hartuta. Hori dela eta, kiroldegiko igerilekua olgetarako erabiltzea erabaki dugu, Elizaldeko beste igerileku bat izango balitz bezala.

Beraz, kiroldegiko abonua duten pertsonak ezin izango dute igerilekua erabili Elizaldeko igerilekuetarako abonurik gabe. Hau da, ezin izango da ez igerilekua, ez gimnasioa erabili eta ez da kiroldegian bestelako jarduerarik egongo.

Igerilekuetarako prezioak

Instalazioetan bi txanda dauden bitartean, igerilekuetarako prezioak honako hauek izango dira:

- 18 urtetik gora eta 65 urtetik beherako pertsonentzat: 4 euro
- 3 urtetik gora eta 18 urtetik beherako pertsonentzat eta 65 urtetik gorakoentzat: 3 euro
- 3 urtetik beherako hurrek ez dute ordaindu behar izango.

Udan zehar txanda bikoitza desagertzen bada eta egun osorako joateko aukera baldin badago, sarreraren prezioa ohikoa izango da:

- 18 urtetik gora eta 65 urtetik beherako pertsonentzat: 6 euro
- 3 urtetik gora eta 18 urtetik beherako pertsonentzat eta 65 urtetik gorakoentzat: 4 euro
- 3 urtetik beherako hurrek ez dute ordaindu behar izango.